

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udalaren 7. zerga ordenantzaren 11. eranskina aldatzeari, hain zuzen ere bide publikoan aparkatutako ibilgailuak kendu eta gordetzearen tasa arautzen duenari

Udalbatzak, 2018ko uztailaren 26ko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion aldatzeari 7. zerga ordenantzaren 11. eranskina, hain zuzen ere bide publikoan aparkatutako ibilgailuak kendu eta gordetzearen tasa arautzen duena (2018/8/S062 espediente), eta 2018ko irailaren 14ko ALHAOn (106 zk.) argitaratu zen. Erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, hala agintzen baitu Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17-3 artikuluan, eta jendaurrean jartzen da zerga ordenantzaren testu osoa, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70-2 artikuluan eta aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak (Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak) 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen:

7.11 ERANSKINA. BIDE PUBLIKOAN APARKATUTAKO IBILGAILUAK KENDU ETA GORDETZEAREN TASA

1. artikulua. Lege oinarria

Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 57. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bide publikoan aparkatutako ibilgailuak kendu eta gordetzearen tasa ezartzen da, ordenantza honek arautuko duena.

2. artikulua. Subjektu pasiboa

Bide publikoan aparkaturik dauden ibilgailuak bertatik kendu eta gordetzeko zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa ordaintzera derrigorturik daude Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak. Pertsona eta erakunde horiek garabi zerbitzua izan duten eta udal instalazioetan gorde dituzten ibilgailuen jabeak izango dira.

3. artikulua. Tarifak

Tasen zenbatekoa honakoa izango da:

1º. Garabiak ibilgailua bertatik kentzea:

a) 1.500 kg edo gutxiagoko ibilgailuak, lanorduetan eta lanegunetan eramanak. 92,61 euro/ibilgailua. Lanorduak dira 8:00etatik 20:00etara.

b) 1.500 kg edo gutxiagoko ibilgailuak, lanorduz kanpo edo jaiegunetan eramanak. 138,91 euro/ibilgailua.

c) 1.501 - 2.000 kg arteko ibilgailuak, lanorduetan eta lanegunetan eramanak. 104,20 euro/ibilgailua.

d) 1.501 - 2.000 kg arteko ibilgailuak, lanorduz kanpo edo jaiegunetan eramanak. 156,35 euro/ibilgailua.

e) 2.001 - 3.500 kg arteko ibilgailuak, lanorduetan eta lanegunetan eramanak. 120,85 euro/ibilgailua.

f) 2.001 - 3.500 kg arteko ibilgailuak, lanorduz kanpo edo jaiegunetan eramanak. 181,29 euro/ibilgailua.

g) 3.500 kg baino gehiagoko ibilgailuei (kamioiak, autobusak edo ibilgailu bereziak) zerbitzuaren kostu osoa kobratuko zaie.

h) Garabiari deitu ostean ibilgailua kendu beharrik ez badago, jabeak aurrez kendu duelako, tasa hauek kobratuko dira:

h.1) Ibilgailuak lanordu eta lanegunetan: 63,67 euro/ibilgailua. Lanorduak dira 8:00etatik 20:00etara.

h.2) Ibilgailuak lanorduz kanpo edo jaiegunetan: 95,50 euro/ibilgailua.

2º. Ibilgailuak udal instalazioetan gordetzeko zerbitzuarengatik: 7,00 euro/ibilgailua/eguna.

4. artikulua. Ordaindu beharra

1. Ordaindu beharra sortzen da:

a) Ibilgailua garabiak kentzea: udalak zerbitzua ematen duen unean.

b) Ibilgailua udal instalazioetan gordetzea: kendutako ibilgailua gordetzen den unean.

2. Udalak hilero behin-behineko likidazioak egingo ditu ibilgailua udal instalazioetan gordeta dagoen bitartean.

Edozein modutan, ibilgailuaren jabeak, ibilgailua jaso aurreko baldintza legez, jasotzen duen unera arte sortutako tasen zenbateko osoa ordaindu beharko du (igarotako eta ordaindu gabeko zatiaren errekarguak barne). Ordaindutako behin-behineko likidazioen zenbatekoa, halakorik badago, deskontatu egingo da.

5. artikulua. Ez ordaintzea

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

6. artikulua. Salbuespenak eta hobariak

Ez da salbuespenik egingo edota hobaririk emango ordenantza honek arautzen dituen ta-setan.

7 artikulua. Administrazioa eta kobrantza

1. Udalak hilero behin-behineko likidazioak egingo ditu ibilgailua udal instalazioetan gordeta dagoen bitartean.

2. Ibilgailua bi hilabete baino gehiago egoten baldin bada udal gordailuan, bertatik jaso gabe, Amurrioko Udalak bere jabeari eskatu ahal izango dio hamabost (15) eguneko epean jasotzeko. Egun horiek igaro eta jabeak oraindik ez badio kasurik egin eskaerari, ibilgailua hiri hondakin solidotzat joko da.

AZKEN XEDAPENA

Bide publikoan aparkaturik dauden ibilgailuak bertatik kendu eta gordetzearen tasa arautzen duen 7.11 eranskina indarrean sartuko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta hala jarraituko du aldatzea edo indargabetzea onartzen ez den bitartean.

Amurrio, 2018ko urriaren 30a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA